

Jesús García Larragán
Zerbitzuen, Udal Harremanen eta Larrialdien zuzendari nagusia
Bizkaiko Foru Aldundia
Gran Vía 25
48009 Bilbao
Bizkaia

García Larragán jauna:

Jakina dan lez, Galdakaoko Udalak hasiera emon deutso Usansolo Galdakaotik segregatzeko prozesuari.

Prozesuaren lehenengo fasea mugen ezarpena zehaztea da eta langintza horretan ari da Batzorde Paritarioa. Azkenengo batzarrean UH-ko (Usansolo Herria) batzordekide bik proposamen bat luzatu eben: Batzorde Paritarioan Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartzea. Agiri honeguz batera UHko batzordekideek egindako proposamena bidaltzen deusut, proposamena gertutik ezagutu eta egoki deritxazun erantzuna emon degiozun.

UHren proposamenaguz batera bidaltzen deusudaz Bozeramaleen Batzordeak 2016ko uztailaren 27an onartutako Ibilbide-orria eta Batzorde Paritarioa eratzeke 2015eko apirilaren 28an Udaleko Osoko Bilkuran onartutako mozinoaren edukia.

Gainerakoan eskertuko neikizu; 1991 urtean helburu bardinaguz sortutako prozesuaren inguruan BFAn egon leitekean dokumentazioaren kopia bat Galdakaoko Udalera helarazotea, gure Udal-artxiboan agertzen dan txostenaguz alderatu ahal izateke.

Begirunez,

*Ibon Uribe Elorrieta
Galdakaoko alkatea*

Galdakaon, 2017ko urtarrilaren 31n

